

The background of the entire page is a close-up photograph of numerous condoms, with a red ribbon (the symbol for HIV/AIDS awareness) draped across the left side. The condoms are arranged in rows, and the lighting creates highlights on their surfaces.

HIESA Prebenitu eta Kontrolatzeko Planaren 2009-ko memoria

Memoria del Plan de Prevención y Control del SIDA, 2009



Osakidetza



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO



AURKIBIDEA.

ÍNDICE.

1	GIB INFEKZIOA _____	5
	INFECCIÓN POR VIH _____	5
2	HIES-KASUAK _____	13
	CASOS DE SIDA _____	13
3	TRATAMENDU ANTIERRETROBIRALA _____	19
	TRATAMIENTO ANTIRRETROVIRAL _____	19
4	GIB DETEKTATZEKO FROGAK _____	23
	PRUEBAS DE DETECCIÓN DEL VIH _____	23
5	SEXU TRANSMISIOKO GAIXOTASUNEN KONTSLTA, DONOSTIA _____	29
	CONSULTA DE ENFERMEDADES DE TRANSMISIÓN SEXUAL, SAN SEBASTIÁN _____	29
6	GIB-TEST AZKARRAK BOTIKETAN _____	35
	TEST RÁPIDOS DEL VIH EN FARMACIAS _____	35
7	PREBENTZIO KANPAINA: "HARREMAN BERRI BAT HASTERA BAZOAZ, EZ ZAITEZ ARRISKUAN JARRI. HIESAREN FROGA EGIN EZAZU" _____	39
	CAMPAÑA DE PREVENCIÓN: "SI EMPIEZAS UNA NUEVA RELACIÓN, NO CORRAS RIESGOS. HAZTE LA PRUEBA DEL VIH" _____	39
8	GIB/HIESA PREBENITZEKO PROGRAMAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FARMAZIA, GKE ETA ESPETXEETAN _____	43
	LOS PROGRAMAS DE PREVENCIÓN DEL VIH/SIDA EN LAS FARMACIAS, ONGS Y CENTROS PENITENCIARIOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO _____	43
9	GIB/HIESA, SEXU TRANSMISIOKO GAIXOTASUNAK ETA NAHI EZ DEN HAURDUNALDIA PREBENITZEKO PROGRAMA HEZKUNTZAREN EREMUAN _____	47
	PROGRAMA PARA LA PREVENCIÓN DEL VIH/SIDA, ENFERMEDADES DE TRANSMISIÓN SEXUAL Y EMBARAZO NO DESEADO EN EL ÁMBITO EDUCATIVO _____	47
10	HIESAREN AURKAKO GKE-ENTZAKO DIRULAGUNTZAK _____	51
	SUBVENCIONES A LAS ONGs ANTI-SIDA _____	51
11	BESTE JARDUERA BATZUK _____	55
	OTRAS ACTIVIDADES _____	55



GIB INFEKZIOA.

INFECCIÓN POR VIH.

Laburpena

1997az geroztik, 2.293 GIB-infekzio berri azaldu dira, eta goranzko joera txiki bat ikusi da azken hiru urteotan.

2009an:

2009an 207 GIB-infekzio berri diagnostikatu dira; 2008an, aldiz, 199 izan ziren eta 2007an, berriz, 173.

GIBa, batez ere, sexu-harremanen bidez transmititzen da: %47,3 harreman heterosexualen bidez, eta %33,8 harreman homosexualen bidez.

Gizonezkoen artetik, %44,2ri harreman homosexualen bidez transmititu zaie.

Infekzio berrien %65,7 Bizkaian diagnostikatu da, %22,2 Gipuzkoan, eta %12,1 Araban.

Diagnostiko hori eman zaien batz besteko adina 31,5 da: %75,4 gizonezkoak dira, eta gainerako %24,6 emakumezkoak.

Diagnostiko hori eman zaien artetik, %34,7, jatorriz, kanpotarra da: Latinoamerikarra eta Saharaz azpiko Afrikarra, batez ere.

Resumen

Desde 1997 se han declarado un total de 2.293 nuevas infecciones por VIH, registrándose una ligera tendencia al alza en los últimos tres años.

En 2009:

Durante el año 2009 se han diagnosticado 207 nuevas infecciones por VIH, frente a las 199 de 2008 y las 173 de 2007.

El VIH se transmite fundamentalmente por vía sexual: 47,3% por relaciones heterosexuales y 33,8% por prácticas homosexuales.


En el caso de los hombres, la transmisión a través de relaciones homosexuales supone el 44,2%.

El 65,7% de las nuevas infecciones se ha diagnosticado en Bizkaia, el 22,2% en Gipuzkoa y el 12,1% en Araba.

La edad media de las personas diagnosticadas es de 31,5 años; el 75,4% son hombres y el restante 24,6% mujeres.


El 34,7% de las personas diagnosticadas es de origen extranjero, proveniente principalmente de Latinoamérica y África subsahariana.

GIB INFEKZIO BERRIAK, 1997-2009.
NUEVAS INFECCIONES POR VIH, 1997-2009.




_Guztira: 2.293
 _Total: 2.293

LURRALDE HISTORIKOA, 2009.
TERRITORIO HISTÓRICO, 2009.




_Guztira: 207
 _Total: 207


OSPITALEAK, 2008-2009. *HOSPITAL, 2008-2009.*




SEXUA, 1997-2009. *SEXO, 1997-2009.*




ADINA, 2009.
EDAD, 2009.



TRANSMISIO-BIDEA, 2009.
VÍA DE TRANSMISIÓN, 2009.




TRANSMISIO-BIDEA, GIZONAK, 2009.
VÍA DE TRANSMISIÓN, HOMBRES, 2009.




_Guztira 156 gizon
 _Total 156 hombres

TRANSMISIO-BIDEA, EMAKUMEAK, 2009.
VÍA DE TRANSMISIÓN, MUJERES, 2009.




_Guztira: 51 emakume
 _Total: 51 mujeres

HIESA-REKIKO BATERAGARRITASUNA, 2009.
COINCIDENCIA VIH CON SIDA, 2009.




_Guztira: 207
_Total: 207

JATORRIA, 2009.
ORIGEN, 2009.



_Guztira: 207
_Total: 207

ATZERRITARREN JATORRIA, 2009.
ORIGEN DE LAS PERSONAS EXTRANJERAS, 2009.



_Guztira: 72
_Total: 72



HIES-KASUAK.

CASOS DE SIDA.

Laburpena

1984. urtetik 5.599 hies-kasu berri diagnostikatu dira, laurogeita hamargarren hamarkadaren erdialdean hasitako beheranzko joaerari jarraiki.

2009. urtean:

2009. urtean 50 hies-kasu berri diagnostikatu dira eta 45 pertsona hil dira arrazoi horrengatik.

2009. urteko kasu berrien %46, transmisioa bide heterosexualetik izan da, %16 bide homosexualetik eta %30 bide parentelareko droga erabiltzaileak ziren.

Kasu berrien %60 Bizkaian detektatu da, %22 Gipuzkoan eta %18 Araban.

Diagnostikatutako pertsonen batez besteko adina 43,9 urtekoa da; %82 gizonezkoak dira eta %18 emakumezkoak.

Resumen

Desde 1984 se han diagnosticado 5.599 nuevos casos de sida, continuando la tendencia descendente iniciada a mediados de la década de los noventa.

En 2009:


En 2009 se han diagnosticado 50 nuevos casos de sida y 45 personas han fallecido por esta causa.

En el 46% de los nuevos casos de 2009, la transmisión se ha producido por vía heterosexual, en el 16% por vía homosexual y en el 30% de los casos se trataba de usuarios de drogas por vía parenteral.


El 60% de los nuevos casos se ha diagnosticado en Bizkaia, el 22% en Gipuzkoa y el 18% en Araba.

La edad media de las personas diagnosticadas es de 43,9 años; el 82% son hombres y el 18% mujeres.


HIES-KASUAK, 1984-2009. CASOS DE SIDA, 1984-2009.




HILDAKOEN HIES-KASUAK, 1984-2009. CASOS DE SIDA FALLECIDOS, 1984-2009.



OSPITALEAK, 2008-2009.
HOSPITAL, 2008-2009.




LURRALDE HISTORIKOA, 2009.
TERRITORIO HISTÓRICO, 2009.




_Guztira: 50
_Total: 50

SEXUA, 2009.
SEXO, 2009.




_Guztira: 50
_Total: 50

ADINA, 2009.
EDAD, 2009.



_Guztira: 50
_Total: 50

TRANSMISIO-BIDEA, 2009.
VÍA DE TRANSMISIÓN, 2009.



_Guztira: 50
_Total: 50



TRATAMENDU ANTIERRETROBIRALA.

TRATAMIENTO ANTIRRETROVIRAL.

Laburpena

2009. urtean euskal ospitaleetan tratamendu antierretrobiralaren gastua 36,9 milioi eurokoa izan zen, 2008. urtean baino %10,7 gehiago.


Artatutako pazienteen kopurua: 4.604.

Resumen


En 2009 el gasto en tratamiento antirretroviral en los hospitales vascos alcanzó la cifra de 36,9 millones de euros, un 10,7% más que en 2008.

El número de pacientes atendidos fue de 4.604.

TRATAMENDU ANTIERRETROBIRALAREN GASTUA, 1995-2009.
GASTO EN TRATAMIENTO ANTIRRETROVIRAL, 1995-2009.



PAZIENTE-KOPURUA TRATAMENDU ANTIERRETROBIRALEAN, 1997-2009.
NÚMERO DE PACIENTES EN TRATAMIENTO ANTIRRETROVIRAL, 1997-2009.



GASTUA TRATAMENDU ANTIERRETROBIRALEAN OSPITALEKA, 2009 - 2008.
GASTO EN TRATAMIENTO ANTIRRETROVIRAL POR HOSPITAL, 2009 - 2008.

	URTEA 2009 <i>AÑO 2009</i>	URTEA 2008 <i>AÑO 2008</i>	ALDEA <i>Variación</i>
OSPITALEA <i>HOSPITAL</i>	Euro <i>Euros</i>	Euro <i>Euros</i>	%
Basurtu <i>Basurto</i>	10.318.171	9.586.407	7,63
Donostia <i>Donostia</i>	9.957.125	9.094.953	9,48
Gurutzeta <i>Cruces</i>	6.339.845	5.502.311	15,22
Galdakao <i>Galdakao</i>	3.783.982	3.471.288	9,01
Txagorritxu <i>Txagorritxu</i>	3.939.919	3.377.141	16,66
San Eloy <i>San Eloy</i>	944.690	839.566	12,52
Santiago <i>Santiago</i>	974.567	856.721	13,76
Zumárraga <i>Zumárraga</i>	441.785	431.926	2,28
Deba Garaia <i>Alto Deba</i>	141.114	124.254	13,57
Beste batzuk <i>Otros</i>	18.526	13.501	0,37
Guztira <i>Total</i>	36.859.724	33.298.068	10,70

GIB DETEKTATZEKO FROGAK.

PRUEBAS DE DETECCIÓN DEL VIH.

Laburpena

2009an borondatzeko 3.272 proba anonimo egin dira GIB-kontrako antigorputzak detektatzeko. Horietatik, 189 Gasteizko EAGn (Etengabeko Arreta Gunea), 927 Donostiako GIBaren eta Sexu Transmisiozko Gaixotasunen (STG) kontsultan, eta 2.156 Bilboko GIB eta STGn kontsultan.

Gizonezkoen artean, proben %67 harreman heterosexual arriskutsua izateagatik eskatu da, eta %29,2, berriz, harreman homosexualagatik. Emakumeen artean, berriz, %50,8 harreman heterosexualagatik eta %42,1 prostituzioan aritzeagatik.

Proben %1,7k (58) positibo eman du, aurreko urtean baino intzidentzia handixeagoa erregistratuz (%0,9).

Gizonezkoetan, positibo eman duten emaitzetatik %74,5 sexu harremanak gizonezkoekin izan dituztenen artean erregistratu dira, eta %17,6 harreman heterosexualak izan dituztenen artean.

Emakumezkoen artean, berriz, positibo eman duten emaitzen %71,4 harreman heterosexualengatik izan da, eta %28,6tan prostituzioan aritzen ziren emakumeak ziren.

Resumen

Durante el año 2009 se han realizado 3.272 pruebas voluntarias y anónimas de detección de anticuerpos anti-VIH. De ellas 189 corresponden al P.A.C. de Vitoria-Gasteiz, 927 a la consulta de VIH y Enfermedades de Transmisión Sexual (ETS) de San Sebastián y 2.156 a la consulta de VIH y de ETS de Bilbao.


Entre los hombres, el 67% de las pruebas ha sido solicitado por haber mantenido una relación heterosexual de riesgo y el 29,2% por una relación homosexual. En las mujeres, el 50,8% por una relación heterosexual y el 42,1% por ejercicio de la prostitución.

El 1,7% (58) del total de pruebas ha dado un resultado positivo, registrándose una incidencia sensiblemente superior a la del año anterior (0,9%).

Entre los hombres, el 74,5% de los resultados positivos se ha registrado en hombres que tienen sexo con hombres y el 17,6% por relaciones heterosexuales.


En el caso de las mujeres, el 71,4% de los resultados positivos ha sido debido a relaciones heterosexuales y en un 28,6% eran mujeres que ejercían la prostitución.

LURRALDEA ETA SEXUA, 2009. TERRITORIO Y SEXO, 2009.




_Guztira / Total 3.272 _Gizonak / Hombres Emakumeak / Mujeres _Guztira / Total

JATORRIA, 2009. ORIGEN, 2009.




ARRISKU-JARDUERAK, 2009.
PRÁCTICA DE RIESGO, 2009.




BPDE: Bide parentelagatiko droga erabiltzaileak
UDVP: Usuario de drogas por vía parenteral

ARRISKU-JARDUERAK, GIZONAK, 2009.
PRÁCTICA DE RIESGO, HOMBRES, 2009.



_Guztira: 1.822 BPDE: Bide parentelagatiko droga erabiltzaileak
_Total: 1.822 UDVP: Usuario de drogas por vía parenteral


ARRISKU-JARDUERAK, EMAKUMEAK, 2009. PRÁCTICA DE RIESGO, MUJERES, 2009.



_Guztira: 1.450 BPDE: Bide parentelagatiko droga erabiltzaileak

_Total: 1.450 UDVP: Usuario de drogas por vía parenteral

JATORRIA ETA ARRISKU-JARDUERAK, 2009. ZONA DE ORIGEN Y PRÁCTICA DE RIESGO, 2009.




BPDE: Bide parentelagatiko droga erabiltzaileak

UDVP: Usuario de drogas por vía parenteral


BPDE Homo/bisexual Heterosexual Prostituzioa Bestelakoak Ed/Ee
UDVP Homo/bisexual Heterosexual Prostitución OTRAS Ns/Nc

EMAITZA POSITIBOAK, ARRISKU-JARDUERAK, 2009.
RESULTADOS POSITIVOS, PRÁCTICA DE RIESGO, 2009.



_Guztira: 58
_Total: 58

EMAITZA POSITIBOAK, ARRISKU-JARDUERAK, GIZONAK, 2009.
RESULTADOS POSITIVOS, PRÁCTICA DE RIESGO, HOMBRES, 2009.



_Guztira: 51
_Total: 51

EMAITZA POSITIBOAK, ARRISKU-JARDUERAK, EMAKUMEAK, 2009.
RESULTADOS POSITIVOS, PRÁCTICA DE RIESGO, MUJERES, 2009.

Prostituzioa %28,6
Prostitución 28,6%

Harr. Heterosex. %71,4
Rel. Heterosex. 71,4%

_Guztira: 7
_Total: 7



SEXU TRANSMISIOKO GAIXOTASUNEN KONTSULTA, DONOSTIA.

CONSULTA DE ENFERMEDADES DE TRANSMISIÓN SEXUAL, SAN SEBASTIÁN.

Laburpena

2009an

1.271 bisita izan ziren guztira: 572 aurreneko kontsultak, 550 emaitzak jasotzeko, eta 149 azterketak. Horrek esan nahi du 557 lagun desberdin artatu zirela.

Artatutakoen artean, %53 emakumeak ziren, %46,5 gizonezkoak, eta %0,5 transexualak.

%67,3 bere kasa joan zen, %18,3 GKE/ONG bat tarteko zela, eta %7,4 Lehen mailako arreta zerbitzuko medikuren batek bidalita.

Kontsultara joandako emakumeen %63,2 prostituzioan aritzen zena zen.

Resumen

En 2009:


El número total de visitas fue de 1.271; 572 fueron primeras consultas, 550 para recogida de resultados, y 149 revisiones. Esto supuso que fueran atendidas 557 personas distintas.

El 53% de las personas atendidas fueron mujeres, el 46,5% hombres y el 0,5% personas transexuales.


El 67,3% de las personas acudió por iniciativa propia, el 18,3% a través de ONGs y el 7,4% fue derivado por un médico de Atención Primaria.

El 63,2% de la mujeres que acudió a la consulta se dedicaba al ejercicio de la prostitución.

ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA, 2003-2009.
NÚMERO DE PERSONAS ATENDIDAS, 2003-2009.




SEXUA, 2009.
SEXO, 2009.




_Guztira: 557
 _Total: 557

ADINA, 2009.
EDAD, 2009.



_Guztira: 557
_Total: 557

NORK BIDALIA, 2009.
REMITIDO POR, 2009.




_Guztira: 557
_Total: 557

PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN ARTATUTAKO EMAKUMEAK, 2009.
MUJERES ATENDIDAS QUE EJERCEN LA PROSTITUCIÓN, 2009.




_Guztira: 300 emakumeak
 _Total: 300 mujeres

JATORRIA, 2009.
ORIGEN, 2009.




_Guztira: 557 Gizonak ■ Emakumeak ■
 _Total: 557 Hombres ■ Mujeres ■

DIAGNOSTIKOAK GIZONETAN, 2009. *DIAGNÓSTICOS EN HOMBRES, 2009.*



DIAGNOSTIKOAK EMAKUMEETAN, 2009. *DIAGNÓSTICOS EN MUJERES, 2009.*





GIBaren-TEST AZKARRAK BOTIKETAN.

TEST RÁPIDOS DEL VIH EN FARMACIAS.

Laburpena

2009ko martxoaz geroztik (programa garai horretan ezarri zen) GIBaren 2.885 test egin dira Euskadiko 20 farmaziatan; eta horien emaitzen artetik, 24 positibo erregistratu dira (%0,8).

Hasierako arrakastaren ondoren –martxoan 608 test egin ziren–, egiten diren testen kopurua egonkor xamar mantentzen da: 253 test, batz bestea, hileko.

Testa egiteko arrazoi nagusia bagina-koitoxa izan zen (%58). Ondoren, hurrenez hurren, felazioa (%9,5), uzki-koitoxa (%7,1) eta cunnilingus-a (%5,8).

Testa egin zutenen artetik, %71,8 gizonezkoa zen, eta horietatik %66,2k 20 eta 39 urte bitartean zituen.

Resumen


Desde marzo de 2009 (fecha en que se implantó el programa) se han realizado 2.885 test rápidos del VIH en 20 farmacias del País Vasco, habiéndose registrado 24 resultados positivos (0,8%).

Tras el boom inicial con 608 test en el mes de marzo, el número de test se mantiene relativamente estable con un media mensual de 253 test.


La razón principal para realizarse el test fue la penetración vaginal (58%). A continuación se sitúan la felación (9,5%), la penetración anal (7,1%) y el cunnilingus (5,8%).

El 71,8% de quienes acudieron a realizarse el test eran hombres y el 66,2% tenía entre 20 y 39 años.


HILEKA EGINDAKO TEST KOPURUA, 2009.
NÚMERO DE TEST REALIZADOS SEGÚN MES, 2009.



LURRALDE HISTÓRIKOA, 2009.
TERRITORIO HISTÓRICO, 2009.




TESTEN EMAITZAK, 2009. RESULTADOS DE LOS TEST, 2009.




Emitza negatiboak: 2.852
Resultados negativos: 2.852


SEXUA, 2009. SEXO, 2009.



ADINA, 2009.
EDAD, 2009.



TESTA EGITEKO ARRAZOIAK, 2009.
MOTIVO PARA REALIZARSE EL TEST, 2009.



PREBENTZIO KANPAINA: "HARREMAN BERRI BAT HASTERA BAZOAZ, EZ ZAITEZ ARRISKUAN JARRI. HIESAREN FROGA EGIN EZAZU".

CAMPAÑA DE PREVENCIÓN: "SI EMPIEZAS UNA NUEVA RELACIÓN, NO CORRAS RIESGOS. HAZTE LA PRUEBA DEL VIH".

Testuingurua

Epidemiologia eta prebentzio mailan beharrezkoa da era diferentziatuan analizatzea hiesaren bilakaera eta GIBaren diagnosi berrien bilakaera. Gaur egun, medikoki ongi kontrolatutako GIB eramaileak urte askoan bizi daitezke hiesik garatu gabe.

Gure inguruan, hies kasuak gutxitzen ari badira ere, GIB diagnosi berriek ez dute joera bera erakusten; kopurua egonkor mantentzen ari da azken 12 urtean, are gehiago, goranzko joera txiki batzuekin, gainera.

EAEko GIBaren egoera laburbiltzeko esan daiteke, urtero, 200 bat diagnosi berri egiten direla, transmisioa, batez ere, sexu bidezkoa dela, eta diagnosia egitean, bataz besteko adina 39 urtekoa.

Gure ospitaletan artatu diren GIBa dutenen batez besteko adina 45 urtekoa da; hori dela eta, GIBa, batez ere, helduen artean ematen delako ustea are gehiago indartzen da.

Contexto

A nivel epidemiológico y preventivo es preciso analizar de forma diferenciada la evolución del sida y la de los nuevos diagnósticos por VIH. En la actualidad, las personas portadoras de VIH adecuadamente controladas desde el punto de vista médico, pueden vivir muchos años sin desarrollar sida.

En nuestro contexto aunque los casos de sida sí están descendiendo, los nuevos diagnósticos de VIH no lo hacen; su número se mantiene estabilizado en los últimos doce años, incluso con ligeras tendencias al alza.

La situación del VIH en la CAPV podría resumirse diciendo que cada año se diagnostican unas 200 nuevas personas con VIH, que la transmisión se produce principalmente por vía sexual y que la edad media al diagnóstico es de 39 años.

La edad media de las personas con VIH atendidas en nuestros hospitales se sitúa alrededor de los 45 años, lo cual nos lleva a ahondar aún más en la idea de que el VIH se centra principalmente en el mundo de los adultos.

Beste datu garrantzitsu bat diagnosiaren atzeratzea da. Gaur egun, GIB infekzio berrien heren batean, batera doaz infekzioa diagnostikatzea eta hies gaixotasuna agertzea. Horrek esan nahi du, pertsona horiek denbora luzean bizi izan direla GIBaren eramaileak zirenik ere jakin gabe eta, beraz, ziurrenik beharrezko neurri prebentiboak hartu gabe; horra bada, pertsonak arriskueta kontzientziatu eta GIBaren probak egitera animatzearen beharra.

Badakigu, gainera, GIBaren transmisio-arriskua handiagoa dela beste bikote batekin sexu-harremanak izaten hastean, zaila baita, GIBarekiko bere osasun-egoeraren berri jakitea. Askotan, helduek hiesetik urrun ikusten dute beren burua, gazte inguruarekin lotzen dutelako; izan ere, horiek sexu-harreman gehiago eta bikote desberdin gehiagorekin izaten baitituzte. Alde batetik hori, eta GIB/hiesa inguru marjinatuekin lotzea bestetik, izan daitezke arrazoi helduek beren burua arriskutik urruti ikusteko eta sexu-harremanetan ez babesteko.

Horrelako testuinguruan, benetan zentzu handia du honelako kanpaina bati heltzeak: Bikote berri batekin sexu-harremanak izaten hasten diren helduei zuzendutako prebentzio-kanpaina, GIBaren probak egitera animatzeko eta, horrela, GIBaren gaineko arrisku oro ekiditeko.

KANPAINAREN HELBURUAK

- 1.- Helduak (35etik 50 urte bitartekoak, gutxi gorabehera) kontzientziatzea GIBaren infekzio berri asko ematen direla, eta batez besteko adina, diagnosa egitean, 39 urtekoa dela.
- 2.- Azpimarratzea transmisio—bide arriskutsuena beste bikote batekin eta babesik gabe edukitako sexu-harremanak direla, hots, bikotearen GIBarekiko egoera zein den ziur ez dakigunean.
3. Diagnosietan zenbaterainoko atzeratzea dagoen ikusita, azpimarratzea, GIB-proba egitea komeni dela beste bikote bat dugunean.

Otro dato importante es el del retraso diagnóstico. Actualmente en la tercera parte de las nuevas infecciones por VIH, el diagnóstico de la infección coincide con la aparición de la enfermedad sida. Esto significa que dichas personas han vivido durante mucho tiempo sin conocer que eran portadoras del VIH y, por tanto, seguramente sin adoptar las medidas preventivas oportunas, de ahí la necesidad de hacer a las personas conscientes de los riesgos y animarles a realizarse la prueba del VIH.

Sabemos, además, que puede existir un mayor riesgo de transmisión del VIH cuando se inician relaciones sexuales con una nueva pareja, de la que lo más probable es que se desconozca su estado de salud en relación al VIH. Muchas veces los adultos se sienten lejanos al sida ya que quizás lo asocian más al ámbito de los jóvenes, que son quienes tienen un mayor número de relaciones sexuales y con más parejas diferentes. Esto, unido a que se sigue circunscribiendo el VIH/sida a un ámbito marginal, puede hacer que los adultos se sientan muy lejanos al riesgo y no se protejan en sus relaciones sexuales.

En este contexto cobra pleno sentido la realización de una campaña de prevención dirigida a las personas adultas que inician relaciones sexuales con una nueva pareja, animándoles a realizarse la prueba del VIH y evitar así todo riesgo en relación al VIH.

OBJETIVOS DE LA CAMPAÑA

- 1.- Sensibilizar a la población adulta (35 a 50 años aproximadamente) de que continúan produciéndose nuevas infecciones por VIH y de que la edad media al diagnóstico es de 39 años.
- 2.- Destacar que el mayor riesgo de transmisión se centra en las relaciones sexuales no protegidas con una nueva pareja, es decir con una pareja de la que no se tiene certeza de su estado frente al VIH.
3. Conociendo las altas tasas de retraso diagnóstico existentes, incidir en la conveniencia de realizarse la prueba del VIH cuando se tiene una nueva pareja.

4.- Gogoraraztea ezinbestekoa dela preserbatiboa erabiltzea beren osasun-egoera zein den ez dakigun pertsonekin sexu-harremanak ditugunean.

5.- GIBa dutenen irudi normalizatua ematea, horrela, GIB/hiesa dutenengan dagoen irudi topiko marjinala desagiten laguntzeko.

HELBURU DIRENAK

Gizarte-mailan, oraindik, GIBa transmititzeko arriskurik handiena gazteek dutela uste denez, egoki iritzia genion kanpaina helduengan zentratuta sortzeari; izan ere, horietan erregistratzen baitira diagnosi berri gehienak. Helburutzat hartu zen jendearen adin-tartea, gutxi gorabehera, 35-50 urte bitartean definitu genuen.

Beharrezkotzat jo zen, baita ere, sexu-aniztasuna islatzea sortzerako orduan, bai bikote heterosexuak, bai homosexualak egon zitezen. Ez zen beharrezko ikusi emakumezko bikote homosexualak sartzea, izan ere, horien artean GIB transmisioa ia hutsa da.

KANPAINA BURUTZEA

Kanpaina abenduko lehengo hamabostaldian garatu zen, kanpoko iragarki-euskarrietan finkatuta: autobus- eta tren-geltokietako markesinak, metroko opis-ak eta telefono-kabinak. Era berean, posterrak banatu ziren EAEko osasun-zentro eta farmazia-bulego guztietan.

Material grafiko guztia ele bietan joan zen.



4.- Recordar que es imprescindible utilizar preservativo en las relaciones sexuales con personas cuyo estado de salud desconocemos.

5.- Transmitir una imagen normalizada de las personas con VIH, contribuyendo así a romper el tópico de una imagen marginal de las personas con VIH/sida.

PÚBLICO OBJETIVO

Puesto que a nivel social persiste la idea de que el mayor riesgo de transmisión del VIH se centra en personas jóvenes, se consideró adecuado que la creatividad de la campaña estuviera centrada en población adulta, que es donde se registra la mayor parte de los nuevos diagnósticos. El rango de edad definido como público objetivo fue de 35 a 50 años aproximadamente.

Se consideró necesario también reflejar la diversidad sexual, de forma que la creatividad recogiera tanto parejas heterosexuales como parejas homosexuales masculinas. No se consideró necesario incluir parejas homosexuales femeninas ya que en ellas el riesgo de transmisión del VIH es prácticamente inexistente.

EJECUCIÓN DE LA CAMPAÑA

La campaña se desarrolló durante la primera quincena del mes de diciembre y se apoyó en soportes publicitarios exteriores: marquesinas de paradas de autobuses y de estaciones de tren, OPPIS de metro y cabinas telefónicas. Asimismo se distribuyeron posters en todos los centros de salud y oficinas de farmacia de la CAPV.

Todo el material gráfico tuvo carácter bilingüe.



GIB/HIESA PREBENITZEKO PROGRAMAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FARMAZIA, GKE ETA ESPETXEETAN.

LOS PROGRAMAS DE PREVENCIÓN DEL VIH/SIDA EN LAS FARMACIAS, ONGS Y CENTROS PENITENCIARIOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.


HIESAREN AURKAKO KITaren PROGRAMA

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009. urtean 298.579 xiringa-kit banatu dira (salmenta+trukaketa): 155.783 farmazietan, 141.948 GIB/hiesaren aurkako Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) bidez eta 848 espetxeetan.

PROGRAMA DEL KIT ANTI-SIDA

En la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) durante el año 2009 se han distribuido (venta+ intercambio) 298.579 kits-jeringuillas: 155.783 en las farmacias, 141.948 a través de Organizaciones No Gubernamentales (ONGs) de lucha contra el VIH/sida y 848 en Centros Penitenciarios).

XIRINGA-KITEN KONTSUMOAREN URTEROKO BILAKAERA EAEN. EVOLUCIÓN DEL CONSUMO ANUAL DE KITS-JERINGUILLAS EN LA CAPV.



2002tik 2004ra bitartean xiringa-kitaren banaketak (salmenta+trukea) izandako igoeraren ondoren, 2005ean pixkanaka jaisten hasi zen, eta badirudi azken urteetan, 2008 eta 2009an, egonkortu egin dela joera hori.

Lurralde Historikoka, xiringa-kiten banaketa (salmenta+trukaketa) ondokoa izan da: 15.045 unitate (%5) Araban, 200.928 (%67,3) Bizkaian eta 82.606 (%27,7) Gipuzkoan.

Erkidego osoan banatutako xiringa-kit guztietatik, 108.783 (%36,4) farmazietan saldu dira eta 189.796 (%63,6) trukatu egin dira.

XIRINGAK ALDATZEKO PROGRAMA (XAP)

Trukaketa-programen bidez banatutako 189.796 xiringa-kitetatik, %88,9 (168.872) berreskuratu egin dira ondoren errausteko.

Farmaziek XTP bidez banatutako xiringakiten %24,7 (47.000) eman dute. GKE-ek %74,8 (141.948) eman dute eta gainontzeko %0,4 (848) espetxeek.

Bizkaiko Hiesaren Aurkako Batzordeak 44.724 xiringa banatu ditu, Munduko Medikuek (Begiratutako Kontsumo-Aretoa) 37.568 eta Hontzak (Cáritas-eko gaueko zentroak) 53.296. Hiru GKE horiek gure erkidegoko XTPetan trukaturako xiringa-kiten %71,4 eman dute.

“AIRBAG” PRESERBATIBOAREN KANPAINA

2009. urtean, hiru preserbatiboko 29.608 ontzi banatu dituzte, bakoitza 1,2 €an; kopuru horrek argi erakusten du azken urteetako beheranzko joera mantentzen ari dela.

Después del repunte que experimentó la distribución (venta+intercambio) de kits-jeringuillas en los años 2002 a 2004, en 2005 comenzó una progresión descendente, que parece haberse estabilizado en los últimos años 2008 y 2009.

La distribución (venta+intercambio) de kits-jeringuillas por Territorios Históricos ha sido la siguiente: 15.045 unidades (5%) en Araba, 200.928 (67,3%) en Bizkaia y 82.606 (27,7%) en Gipuzkoa.

Del total de kits-jeringuillas distribuidos en el conjunto de la Comunidad, 108.783 (36,4%) corresponde a la venta en farmacias y 189.796 (63,6%) al intercambio.

PROGRAMA DE INTERCAMBIO DE JERINGUILLAS (PIJ)

De los 189.796 kits-jeringuillas suministrados a través de programas de intercambio, el 88,9% (168.872) se ha recuperado para su posterior incineración.


Las oficinas de farmacia han proporcionado el 24,7% (47.000) del total de kits-jeringuillas distribuidas a través de PIJs. Las ONGs han entregado el 74,8%(141.948) y el 0,4%(848) restante corresponde a los Centros Penitenciarios.

La Comisión Anti sida de Bizkaia ha distribuido 44.724 jeringuillas, Médicos del Mundo (Sala de Consumo Supervisado) 37.568 y Hontza (centro de noche de Cáritas) 53.296. Estas 3 ONGs han proporcionado, el 71,4% del total de kits-jeringuillas intercambiados en los PIJs de nuestra comunidad.

CAMPAÑA DEL PRESERVATIVO “AIRBAG”

Durante el año 2009 las farmacias han distribuido 29.608 envases de tres preservativos al precio de 1,2€, por lo que se mantiene la tendencia descendente de los últimos años.

"AIRBAG" PRESERBATIBOEN KONTSUMOAREN URTEROKO BILAKAERA EAEN.
EVOLUCIÓN DEL CONSUMO ANUAL DEL PRESERVATIVO "AIRBAG" EN LA CAPV.





GIB/HIESA, SEXU TRANSMISIOKO GAIXOTASUNAK ETA NAHI EZ DEN HAURDUNALDIA PREBENITZEKO PROGRAMA HEZKUNTZAREN EREMUAN.

PROGRAMA PARA LA PREVENCIÓN DEL VIH/SIDA, ENFERMEDADES DE TRANSMISIÓN SEXUAL Y EMBARAZO NO DESEADO EN EL ÁMBITO EDUCATIVO.

Hezkuntzaren eremuan GIB/hiesa prebenitzeko programa 1989/90 ikasturtean jarri zen abian eta bereziki 16 eta 18 urte arteko gazteei zuzenduta dago. 2003-2004 ikasturtean programa zabaldu egin zen, eta sexu transmisioko bestelako gaixotasunak bildu zituen. 2008-2009 ikasturtean berriro ere zabaldu egin da nahi ez den haurdunaldia gehituta. Era horretan, programak sexu harremanekin zerikusia duten arrisku posible guztiak prebenitzeko balio du.

Programaren helburu nagusiak ondokoak dira:

- GIB/hiesa infekzio, Sexu Transmisioko Gaixotasun eta nahi ez den haurdunaldiari buruzko ezaguera hobetzea.
- Trebetasun eta baliabide pertsonalen garapena sustatzea sexu segurua egiteko.
- Pertsona seropositiboekiko elkarbizitza normalizatutako jarrerak sustatzea.

Programak hiru alderdi nagusi ditu:

- 1) Ikasmateriala eskaintzea.
- 2) Prestakuntza eskaintzea programa garatzeko, irakasle eta orientatzaileei zuzendutakoa.

El programa de prevención del VIH/sida en el ámbito educativo se puso en marcha en el curso 1989/90 y está dirigido de forma preferente a jóvenes de entre 16 y 18 años. En el curso 2003-2004 el programa se amplió, pasando a incluir también la prevención de otras enfermedades de transmisión sexual. En el curso 2008-2009 se volvió a ampliar con la prevención del embarazo no deseado. De esta manera el programa aborda de forma conjunta la prevención de todos los posibles riesgos asociados a las relaciones sexuales.

Los objetivos principales del programa son:

- Mejorar los conocimientos sobre la infección por VIH/sida, Enfermedades de Transmisión Sexual y prevención del embarazo no deseado.
- Promover el desarrollo de habilidades y recursos personales para poder realizar sexo seguro.
- Fomentar actitudes de convivencia normalizada hacia las personas seropositivas.

El programa se compone de tres partes fundamentales:

- 1) Oferta de material educativo.
- 2) Oferta de formación para desarrollar el programa, dirigida al profesorado y orientadores y orientadoras.

3) Aholkularitza eskaintzea programa garatzeko eta aplikatzeko.

1) IKASMATERIALAREN ESKAINTZEA

Ikasmaterial hori EAEko ikastetxe guztietan eskaintzen da, ikasturte bakoitzaren hasieran eta ondoko elementuak biltzen ditu:

- "GIB/hiesaren, Sexu Transmisioko Gaixotasun eta nahi ez den Haurdunaldiaren prebentzioa. Irakasleentzako gida".
- "GIB/hiesa, Sexu Transmisioko Gaixotasunak eta nahi ez den Haurdunaldia. Gazteentzako gida".
- "Sexu seguruari buruzko DVD".
- Gizon eta emakumeentzako preserbatiboak.

3) Asesoría a demanda para el desarrollo y aplicación del programa.

1) OFERTA DE MATERIAL EDUCATIVO

Este material se ofrece a todos los centros de la CAPV, al inicio de cada curso escolar y consta de los siguientes elementos:

- "Prevención del VIH/sida, Enfermedades de Transmisión Sexual y Embarazo no deseado. Guía para el profesorado".
- "VIH/sida, Enfermedades de Transmisión Sexual y Embarazo no deseado. Guía para jóvenes".
- "DVD sobre sexo seguro".
- Preservativos masculinos y femeninos.

2009-2010 IKASTURTEAN BANATUTAKO IKASMATERIALA MATERIAL EDUCATIVO DISTRIBUIDO EN EL CURSO 2009-2010				
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA TOTAL
IRAKASLEENTZAKO GIDA GUÍA EDUCADOR	60	364	253	677
GAZTEENTZAKO GIDA GUÍA JÓVENES	586	6.491	3.533	10.610
SEXU SEGURUAREN DVDa DVD SEXO SEGURO	37	684	194	915
GIZONEZKOENTZAKO PRESERBATIBOAK PRESERVATIVOS MASCULINOS	389	5.447	4.550	10.386


2) IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA-ESKAITZA

Era berean, ikastetxe guztiek irakasleak prestatzeko saioetan parte hartzeko aukera dute. 4,30 h-ko saioak dira, eta saio horietan, programaren eduki garrantzitsuak azaltzen dira, orientazio metodologiko batzuekin batera. Saio horiek emateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lankidetzak dago, Hezkuntza-Berrikuntza Zuzendaritzaren eta Osasun-Sailaren bidez, Bizkaiko Osasunerako Hezkuntza-Zerbitzuaren bidez.


2) OFERTA DE FORMACIÓN PARA EL PROFESORADO

Igualmente todos los centros educativos tienen la posibilidad de participar en las sesiones de formación del profesorado. Se trata de sesiones de 4,30 h de duración, en las que se exponen los contenidos clave del programa, así como algunas orientaciones metodológicas. Para la impartición de estas sesiones se cuenta con la colaboración del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, a través de la Dirección de Innovación Educativa, y del Departamento de Sanidad, a través del Servicio de Educación para la Salud de Bizkaia.


PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEA, 1989-2010. *CENTROS EDUCATIVOS PARTICIPANTES, 1989-2010.*



PARTE HARTU DUTEN IKASLEAK (milak), 1989-2010.
ESTUDIANTES PARTICIPANTES (miles), 1989-2010.



PARTE HARTU DUTEN IRAKASLEAK, 1989-2010.
DOCENTES PARTICIPANTES, 1989-2010.



HIESAREN AURKAKO GKE-ENTZAKO DIRULAGUNTZAK.

SUBVENCIONES A LAS ONGs ANTI-SIDA.

GKE ONG	PROGRAMA PROGRAMA	2009 2009
BIZKAIKO HIESAREN AURKAKO HERRITARREN BATZORDEA <i>COMISIÓN CIUDADANA ANTI-SIDA DE BIZKAIA</i>	Xiringen trukaketa <i>Intercambio de Jeringuillas</i>	41.600
	Prostituzioa <i>Personas que ejercen prostitución</i>	36.200
	Droga erabiltzaileentzako atentzio soziosanitarioko zentroa <i>Centro Atención drogodependientes</i>	26.400
	Etorkin afrikarrak <i>Inmigrantes africanos</i>	17.700
	Magrebeko gazteen osasun-hezkuntza <i>Educación salud en magrebies</i>	6.600
	Diagnostiko goiztiarra <i>Diagnóstico precoz</i>	17.450
		145.950
T4 BATZORDEA <i>ASOCIACIÓN CIUDADANA DE LUCHA CONTRA EL SIDA T4</i>	Laguntza emozional <i>Apoyo emocional</i>	25.000
	STG eta GIB prebentzioa GSGengan <i>Prevención de ITS y VIH/sida en HSH</i>	18.000
	Kitak gazteen artean banatzea <i>Distribución de kits en jóvenes</i>	7.000
	Prebentzioa prostituzioan <i>Prevención en prostitución</i>	8.000
		58.000

GKE ONG	PROGRAMA PROGRAMA	2009 2009
GIPUZKOAKO HIESAREN AURKAKO HERRITARREN BATZORDEA <i>ASOCIACIÓN CIUDADANA ANTI-SIDA DE GIPUZKOA</i>	Programa komunitarioa Programa comunitario	3.000
	Prebentzioa prostituzioan Prevención en trabajadores del sexo	27.000
	GIB/hiesa dutenei babesa Apoyo a personas con VIH/sida	4.350
	Informazio orokorreko zerbitzua Servicio de información general	2.000
		36.350
ARABAKO HIESAREN AURKAKO HERRITARREN BATZORDEA <i>COMISIÓN CIUDADANA ANTI-SIDA DE ARABA</i>	Xiringen trukaketa Intercambio de Jeringuillas	4.570
	Prostituzioa Mujeres que ejercen prostitución	10.500
	Autolaguntza. Nanklares Apoyo en C.P. Nanclares	3.500
	Partehartze psikologikoa GIB Autoapoyo con afectados por VIH	7.330
	GIB prebentzioa gay eta GSGengan Prevención VIH en gays y HSH	3.850
	Test azkarraren zerbitzua Servicio de prueba rápida	6.000
		35.750
ZIMENTARRI-AUKERA	Esku-hartze psikosoziala prostituzioan Intervención psicosocial prostitución	
		20.000
MUNDUKO MEDIKUAK <i>MÉDICOS DEL MUNDO</i>	Gainbegiraturako kontsumo gela Sala de Consumo Supervisado	
		20.000

GKE ONG	PROGRAMA PROGRAMA	2009 2009
TXO HIESA	Autolaguntza eta sentsibilizazioa Autoapoyo y sensibilización	
		7.750
ASKABIDE	Prostituzioa Prostitución	
		7.200
ITXAROBIDE	Tratamenduan dauden GIB pertsonen laguntzea eta lan-munduratzeara Apoyo a personas VIH en tratamiento e inserción laboral	
		6.000
EHGAM	GIB prebentzioa homosexualengan Prevención VIH en homosexuales	
		10.000
HARRI-BELTZA	Autolaguntza eta sentsibilizazioa Autoapoyo y sensibilización	
		6.000
ALDARTE	Laguntza eta informazioa GIB prebentziorako Apoyo e información prevención VIH	
		6.000
GEHITU	GIB prebentzioa GSGengan Prevención del VIH en HSH	
		36.600
GIZARTERAKO	STG prebentzioa prostituzioan Prevención ETS en prostitución	
		3.000
AS. CAMINO AL BARRIO	Prebentzioa gazteengan Prevención en jóvenes	
		2.000
GUZTIRA TOTAL		400.000



BESTE JARDUERA BATZUK.

OTRAS ACTIVIDADES.

Laburpena

SIDAMEDIA: HIESARI BURUZKO INFORMAZIOA ZABALTZEKO SISTEMA

Informazioa hedatzeko sistema bat da, Gobernuko Osasun Sailak 2008ko urrian abiarazitakoa, eta hainbat aukera eskaintzen ditu; garrantzitsuena, e-mail bidez, astero, GIB/hiesari buruzko berri nagusiak zabaltzea. Hau da, harpidedunek, astero, posta elektroniko bat jasotzen dute asteko berrien artetik egindako hautaketarena. Harpidetza dohainik da, eta une honetan, 300 lagundik gora harpidedun daude.

Harpidetza egiteko osasuneko euskal zerbitzuaren web-orrian (www.euskadi.net/sida) sartu eta sidamedia-ren ikonoa klikatu behar da, eta behin barruan, harpidetza-botoia sakatu. Harpidetza egiteko nahikoa da e-maileko helbidea ematea. Era horretara, asteko buletina jasotzen da, berriak dataren arabera ordenatuta, izenburu eta guzti, zein egunkaritakoa den eta zein esparrutan sailkatu den azalduz. Esparruak honako hauek dira: Prebentzioa, Klinika eta tratamendua, Alderdi sozialak, Epidemiologia, Nazioarteko kooperazioa, Oinarrizko Zientzia eta Beste batzuk.

Eguneko hautapen operatiboa Eusko Jaurlaritzako Prentsa-dokumentazioko Zentroan egiten da. Iturrien artean, besteak beste, hauek ditugu: nazio-mailako eta eskualde-mailako prentsa idatzia, prentsa idatzi medikoa, prentsa digitala eta berri-agentziak ere bai.

Resumen

SIDAMEDIA: SISTEMA DE DIFUSIÓN DE INFORMACIÓN SOBRE SIDA

Es un sistema de difusión de información, puesto en marcha por el Departamento de Sanidad del Gobierno en octubre de 2008, que ofrece diferentes posibilidades, siendo la principal la difusión semanal vía email de las principales noticias sobre VIH/sida. Es decir, las personas suscritas reciben semanalmente un correo electrónico con la selección semanal de las noticias. La suscripción es gratuita, habiendo en estos momentos más de 300 personas suscritas.

Para suscribirse hay que entrar en la página web del servicio vasco de salud www.euskadi.net/sida, pinchar en el icono de sidamedia y, una vez dentro, pinchar en el botón de suscripción. Para suscribirse basta con facilitar dirección del email. De esta manera se recibirá un boletín semanal con las noticias ordenadas por fecha, con el titular, el periódico del que procede y el área en que ha sido clasificada. Las áreas son: Prevención, Clínica y tratamiento, Aspectos sociales, Epidemiología, Cooperación internacional, Ciencia básica y Otros.

Operativamente la selección diaria de las noticias la realiza el Centro de Documentación de Prensa del Gobierno Vasco. Las fuentes incluyen prensa escrita de ámbito nacional, de ámbito regional, prensa escrita médica, también económica (aunque en el caso del VIH/sida es poco relevante), prensa digital y una agencia de noticias.

PERTSONA SEROPOSITIBOENTZAKO AURPEGIKO LIPOATROFIAREN TRATAMENDUA

2006an aurpegirako tratamendua sartu zen Osakidetzako prestazioen artean, antirretrobiralekin tratatzen ari diren eta aurpegiko lipoatrofia duten paziente seropositiboentzat.

Gaur egun, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak Donostia Ospitalea izendatu du EAEko erreferentziako zentrotzat, prestazio hori ez duten beste erkidegoen baitara.

LAGUNTZA BIDEZKO UGALKETA ETA SEMEN GARBIKETA BIKOTE SERODISKORDANTEETAN

Osakidetzak, 2006an, laguntza bidezko ugalketa eta semen garbiketa ere sartu zituen bere prestazioen artean, GIBa duten gizonezkoek eta emakume seronegatiboek osatutako bikote serodiskordanteentzat.

2009an, 36 izan ziren intseminazioa eta garbiketa egin zituzten bikoteak, eta 20, haurdun geratzea lortu zutenak.

BESTELAKO JARDUERAK

- **Hiesari buruz telefono bidezko informazioa** ematen jarraitzen dugu: 943 00 64 64.
- **Kontsultak on-line egiteko** aukera ere ematen jarraitzen dugu web-orri bidez: www.euskadi.net/sida

TRATAMIENTO DE LA LIPOATROFIA FACIAL PARA LAS PERSONAS SEROPOSITIVAS

En 2006 se incluyó el tratamiento reparador facial como una nueva prestación de Osakidetza dirigida a los pacientes seropositivos que se encuentran en tratamiento antirretroviral y presentan lipoatrofia facial.

En la actualidad el Hospital Donostia ha sido designado por el Ministerio de Sanidad y Política Social como centro de referencia del País Vasco, en relación a otras comunidades autónomas que no disponen de esta prestación.


REPRODUCCIÓN ASISTIDA Y LAVADO DE SEMEN EN PAREJAS SERODISCORDANTES


También en 2006 Osakidetza incorporó a sus prestaciones la reproducción asistida y lavado de semen para parejas serodiscordantes, formadas por varones con VIH y mujeres seronegativas.

En 2009 el nº de parejas sometidas a inseminación más lavado fue de 36 y el número de embarazos conseguidos de 20.

OTRAS ACTIVIDADES

- Se continúa atendiendo en el **teléfono de información sobre el sida** 943 00 64 64.
- Se continúa ofreciendo la posibilidades de realizar **consultas on line** a través de la página web www.euskadi.net/sida







www.euskadi.net/sida